

Balore Merkatuari buruzko legerian jasotakoari jarraikiz, Caja Laboral Popular Coop. de Cr ditok Balore Merkatuko Komisio Nazionalari honako honen berri eman dio, merkatuari ezagutzera emateko:

GERTAERA GARRANTZITSUA

Caja Laboral Popular Coop. de Cr ditok jakinarazpena jaso du Espainiako Bankutik. Horren bidez, entitateari 2021eko ekitaldian aplikatuko zaion kaudimen-errekerimenduaren berri eman dio, egindako berrikuspena eta ikuskapen-ebaluazioa oinarri hartuta. Espainiako Bankuak ez ditu aldatu Caja Laboral Popular Coop. de Cr ditori aurreko urtean eskatutako zuhurtziazko errekerimenduak.

Errekerimenduon arabera, Caja Laboral Popular Coop. de Cr ditok gutxieneko % 8,38ko ratioari eutsi behar dio Common Equity Tier 1 (CET1) ratioan, eta % 11,88koari Kapital Osoan, bai jarduera indibidualean bai bateratuan.

Kapital-errekerimenduak hauek hartzen ditu barne:

- CET1 ratioan % 4,50eko 1. oinarriko gutxieneko errekerimendua eta Kapital Osoan % 8,00koa.
- 2. oinarriak eskatzen duen % 1,38ko gainbegirale-errekerimendua.
- % 2,5eko kapitalari eusteko koltxoia.

Caja Laboral Coop. de Cr ditok % 19,92ko CET1 kapital-ratio bateratua aitortu zuen joan den iraileko baliabide propioen aitorpenean, eta hori bat dator Kapital Osoaren ratioarekin. Ratio horietan ez dira sartu ekitaldiko lehen hiru hiruhilekoetan metatutako emaitzak.

Arrasate, 2020ko abenduaren 29a